

TRAFIKO-SALAKETAK

Udaltzainek salaketa mota ezberdinak jar ditzakete. Horiek izapidetzea, berriz, Udalari berari, Trafikoko Buruzagitza Probintzialari (ibilgailuen eta gidarien dokumentazioa) edo Nafarroako Gobernuko *Herri lanen, Garraioen eta Komunikazioen Sailari* dagokio. Nolanahi ere, zehapen-prozeduraren izapideek zehaztasunak badituzte:

Otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuak arautzen du izapidea. Errege Dekretu horrek onesten du zehapen-prozedurari dagokion araudia: trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzkoa.

Zehapen-prozedura ofizioz edo eginiko salaketaren bidez hasten da, bai trafikoa zaintzeaz arduratzen den udaltzainaren eskutik edo behar bezala identifikaturiko partikular baten eskutik.

Hurrengo urratsa prozedura jakinaraztea da, eta hori honelaxe egin daiteke:

- Salaketa-buletinaren bidez, agente-salatzaileak zuzenean salatzen duenean.
- Prozedurari hasiera emateko jakinarazpenaren bidez –dagokion helbidera bidalita–, gidaria ez zegoelako edo martxan zihoalako salaketa egiteko unean.
- Salaketa-jakinarazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzearen bidez.

Jakinarazteko epea eginiko arau-hauste motaren arabera da:

- Arau-hauste arinak jakinarazi behar dira gehienez ere hiru hileko epean,
- larriak sei hilabeteko epean,
- eta oso larriak urtebetean.

Epea zenbatzen hasten da arau-haustea egin den egunetik.

Jakinarazpena jaso ondoren, arau-haustea egin duenak hamabost eguneko epea du, hura jaso duenetik, defentsarako egoki deritzona alegatzeko (alegazioak salaketari) eta egokitzen jotzen dituen probak proposatzeko, Alegaziorako Pleguaren bidez.

Era berean, jakinarazpena ibilgailuaren titularrari heltzen bazaio –arau-hauslea izan gabe edota pertsona juridikoa izanik– Alegaziorako Plegua erabil dezake arau-haustea egin duen gidaria identifikatzeko, halaxe egin behar baitu derrigorrean. Izan ere, arau-hauslea identifikatzeko behar den prozedura-tramitea egiten ez badu –ez egitearen arrazoia eman gabe–, zigorra jarriko zaio arau-hauste larriaren egile bilakatzeagatik. Gainera, isunak gehienezko zenbatekoa izanen du.

Ibilgailuaren titularrak berdin erantzun beharko du identifikatu duen gidariari ezin bazaio salaketa jakinarazi lehenengoari leporatu dakioken arrazoiren bategatik.

Espedientea izapidetu ondoren, isunaren ebazpena eginen da.

Zigorrarekin batera isuna jartzen bada, ezarritako prozeduraren arabera eginen da borondatezko ordainketa.

Ez bada ordainketa borondatezko epean egiten, premiamendu bidez kobratzeko izapideak hasiko dira.

ARAUDIA

Uztailaren 25eko 18/1989 Legea; trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzkoa.

339/1990 Legegintzako Errege Dekretua; onesten dituen, batetik, trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko legea eta, bestetik, lege hori garatzen duten araudiak.